

**PREFABRIKATUTAKO AMETSAK BIDE
ITXIETAN**

Haizea Alvarez Martinez, 17 urte

Getxo

*“Prefabrikatutako ametsetan
estadistikaren zeruan
borondatea itoa izan da
kontsumoaren ferian”*

Hertzainak

Ziutateko mugek jendetza batzen zuten, zeharkatu
ezineko harresiak bailiran,
eta bihotza gero eta gehiago uzkuratzen joan zitza-
dan,
erliebe monokromatiko horrek eragindako klaus-
trofobiaren erruz,
ezin ulertuz nola heldu garen egoera honetara.

Nire alboko neskatilak gaurtik aurrera argaltzen
hasiko dela zin egin die lagunei;
Munduaren bestaldean Cherryk hiru egun dara-
matza gose greba inboluntarioan,
badakizu, pobreziak konbokaturiko greba ospe-
tsuan.

Bitartean bi alderditako bozeramaileek haserraldi
itzela eduki dute,
bakoitza bere aldetik joan eta haurrek bezala opo-
sizioaren aurkako hitzaldiari ekin diote.
Triste xamarra: bista ona eta elkar ezin ikusi.

Zuhaitz brasildarrak laguntza eskatu dio jaunari,
otoi erruki,
bere bizilekua izandakoa lautada uniforme itxura
hartzen ikusi duenean.

Mesedez, *meu Deus dá-me força.*

Eta boteredun gutxi batzuek kristo lako batzarra
prestatu dute,
amets prefabrikatuak jaio berrien sehasketan txer-
tatuz,
gizarte osoa planifikatzeko asmoz.

Gaur herri txiki bezala jaio zenak iraganari so egin
dio bere barne-ilundura itsasoan isladatuz.
Portuko kaiok jubilazioa lortu eta gehiago hegan
ez egiteko erabakia hartu dute,
parke komertzialean paseotxoak ematea nahiago
baitute.

Arazoak mantu ikustezin batekin estaliak izan dira,
normala denaren izenean.
Alde batera utzi ditugu hiltorian dauden beha-
rrezko printzipioak,
eta gaurtik aurrera abadeek teknologia berriei
egingo dietela otoitz aurreratu du Aita Santuak.

Neure bihotzak uzkuratzen jarraitzen du begi bistan
ageri den guztiaren kausaz,

amets prefabrikatuen lurraldean ez dago lekurik
sentimenduetarako,
hitzarmenez erabakiak izan baitira gure helburu
guztiak.

Jada beranduegi da, bide gehienak itxiak izan dira,
gertu da eguna non jaiotza heriotzerainoko zubia
bihurtuko den,
non inor ez den bere buruaren jabe izango,
baina nik ez dut etsiko.

Nik bidea aukera dezaket.